

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa

2023ko memoria-txostena




AURKIBIDEA

1 SARRERA	4
2 HELBURUAK	5
3 2023KO PLANIFIKAZIOA	6
4 2023KO JARDUERA	7
4.1. Talde Eragilea.....	7
4.2. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzako lantaldea	7
4.3. Plenarioa.....	9
4.4. Bateratze-saioa.....	10
4.5. Foro Teknikoa	13
4.5.1. Bilgune Teknikoa	13
4.5.2. Trebakuntza.....	17
4.5.3. Komunikazioa	21
5 BALORAZIOA	22
5.1. Balorazio orokorra.....	22
5.2 Bidelaguntza programaren balorazioa.....	23

Herritarren Partaidetzaren alorrean
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
Herritarren Partaidetzako
Zuzendaritzak gidatzen duen
**Gipuzkoako Lurralde Historikoko
Herritarren Partaidetzarako
Erakunde arteko Espazioaren
2023ko jardueraren memoria** jaso
du Elhuyarrek dokumentu honetan.

2 HELBURUAK

Erakunde arteko Espazioaren lan-jarduna 2020-2023 gogoeta estrategikoaren txapelaren baitan kokatzen dugu (2020. urtean Gipuzkoako udalerrietako ordezkari politiko zein teknikoekin batera garatutakoa). Udalerrietako behar komun eta zehatzei erantzuten dien bost lan-ildo estrategikok osatzen dute lanerako markoa:



2019-2023 plangintzaldiaren amaierara iritsita, eta 2023ko maiatzean hauteskundeak egonda, urteak bi zati izan dituela esan dezakegu.

- Lehenengo seihilekoan:** atzera begira jarri eta egindakoa modu partekatuan ebaluatu dugu, etorkizuneko norabidea marrazteko helburuarekin. Horretarako, berariazko, prozesu bat diseinatu eta garatu da.
- Bigarren seihilekoan:** legegintzaldi berriak eskaintzen dituen abaguneak baliatuz, udal teknikari eta ordezkari bideratutako trebakuntza programa bat diseinatu eta abiatu da, formatu, intentsitate eta konpromiso desberdina eskatzen duten jardurekin.

3 2023KO PLANIFIKAZIOA

Helburuei erantzun asmoz, hauteskunde urtea izateak urteko ikuspegiarekin lan egiteko sortzen zizkigun zailtasunak kontutan izanik, urtea bi txanpatan planifikatu dugu. Hala ere, ondorengo kronograman, urteak eman duena jasotzen dugu:

	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
Talde Eragilea	█	█	█	█	█	█		█	█	█	█	
Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzako lantaldea	█							█				
Bilgune Teknikoa	█					█		█				
Plenaria	█							█				
Bidelaguntza programaren diseinua		█	█	█	█	█	█	█	█			
“Udalak, partaidetza eta ekintza komunitarioa” jardunaldi-zikloa								█		█		
Buletina			█				█	█		█		█

4 2023KO JARDUERA

4.1. Talde Eragilea

Adostutako 2023ko plangintza koordinatu eta bideratzeko Elhuyar Aholkularitzako teknikariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak 12 aldiz bildu gara 2023 urtean zehar. Horietatik 9 bilera lehen seihilekoan izan dira, eta gainerakoak, uda ondorenean. Bilerez gain, etengabekoa izan da posta bidezko eta telefono bidezko harremana.

Talde Eragilearen egiteko nagusiak prozesua abiatu eta ondo bideratzeko baldintza egokiak prestatu eta sortzea izan dira, baita etengabeko jarraipena burutzea ere.

4.2. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzako lantaldea

Legegintzaldia honetan, Zuzendaritzako lantaldea lehendabizikoz bildu da berariaz. Baina [2020-2023ko ebaluazio-prozesuaren baitan](#), plan estrategikoaren betetze-mailaren lehendabiziko azterketa Zuzendaritzari berari zegokiola iritzita, saio bat egin dugu urtea hasi orduko, urtarrilaren 11n, hain zuzen ere.

Saioaren helburuak hauek izan dira:

- ✓ 2020-2023ko jardunaren balorazioa
- ✓ 2023-2027 legegintzaldirako aurrera begirako lan-ildoak marraztea



Hasteko, beraz, horretarako sortutako excel tresna hartu dugu oinarri gisa eta lan-ildo bakoitzaren garapen-maila aztertu dugu. Eta lan-ildo eta estrategien garapen-maila adostuaren emaitza honakoa izan da:

1. Lan-ildoak: Markoa (diskurtsoa, errelatoa...) definitzea:

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
1. Markoa (diskurtsoa, errelatoa, ...) definitzea	1.1. Adostasun eta konpromiso politikoa bilatzeko oinarriak zehaztu	Mintegi eta jardunaldien bidez	Ordezkaritza politikoa	EGIN GABE
		Think That espazioaren bidez		EGIN GABE
		Alderdi politikoekin Batzar Nagusian gaia landuz *Udalekin eredu hartu eta lantaldea sortu lanketa egiteko		EGIN GABE
		Exekutiboaren dinamika indartuz		EGIN GABE
	1.2. Partaidetzaren dimensio desberdinen definizioa adostu	Genero lantaldearen bidez: partaidetza eta generoaren lanketa egin	Ordezkaritza politikoa eta teknikariak	ALTUA
		Mintegiaren bidez: maila anitzeko gobernantza unitate didaktikoaren aurkezpena eta eztabaida		ALTUA
Mintegiaren bidez: ausazko partaidetzaren gida		ALTUA		

2. Lan-ildoak: Markoa (diskurtsoa, errelatoa...) definitzea:

ILDOAK	HEL BURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
2. Etengabeko formazioa eskaintzea	2.1. "Fazilitazioa": prozesuak bideratzeko oinarritzko jakintzak landu	Trebakuntza eskaini hartzailen beharrak eta Aldundiaren aukerak kontuan hartuta	Teknikariak	ALTUA
	2.2. Erreminta digitaletara hurbilpena.	Trebakuntza eskaini hartzailen beharreak eta Aldundiaren aukerak kontuan hartuta		ALTUA
	2.3. Gipuzkoako herritartasun eskola definitu modu kolaboratiboan.	Aldundiak markoa eta prozesua definituz Lantaldea sortuz: Aldundiak landutakoaren markoaren baitan prozesua elkarrekin diseinatu eta abiatzeko	Ordezkarri politikoak eta teknikariak	ALTUA
		ALTUA		

3. Administrazioaren lan-dinamikak aztertu eta baldintza egokiak sortzea:

ILDOAK	HEL BURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
3. Administrazioaren lan-dinamikak aztertu eta baldintza egokiak sortzea	3.1. Partaidetzako teknikarien rola definitu eta balioan jarri	Lantadearen bidez: gaia landuko duen lantaldea sortu	Teknikariak	EGIN GABE
	3.2. Administrazioaren funtzionamendua aztertu: zeharlerrotasuna, aliantzak,...	Gaztematikarekin elkarlanerako esparrua aztertu eta diseinatuta	Administrazioa	ERTAINA
		Udalekin ezagutu eta elkarlanerako bideak aztertu		EGIN GABE
		Ekintza komunitarioaren lanketatik eratorritako harremanetatik beste foro batzuetan parte hartzea: inmigrazio foroa, etab.		ERTAINA

4. Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea:

ILDOAK	HEL BURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
4. Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea	4.1. Herriko eragileak eta Udalak elkarrekin arituko diren eremuak sortu.	Lantaldearen bidez: herri txikiak: herri mailako prozesuak diseinatu, akonpainamendua eskaini...	Teknikariak	EGIN GABE
		Mintegiaren bidez: GIZARTELAB: http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/proiektuak/gizartelab/pr-49/		ERTAINA
	4.2. Herritarrenganako irisgarritasuna lortzeko gakoak identifikatu, desberdinen arteko indarrak metatu.	Jardunaldiaren bidez: EHUKo Udako Ikastaroetako jardunaldia EHUKo Parte Hartuzekin elkarlanean antolatu		ALTUA

5. Komunikazioa eta transferentzia lantzea, jakintza partekatua:

ILDOAK	HELBURUAK	ESTRATEGIA	HARTZAILEAK	GARAPEN-MAILA
5. Komunikazioa eta transferentzia lantzea, jakintza partekatua.	5.1. Erakunde ezberdinen arteko elkarlanerako kultura indartu	Erakunde arteko harremanak landuz, Espazioa eta bertan egiten dena ezagutzera emanaz: parte hartzen ez duten herri ertain eta handietara joan	Teknikariak eta ordezkari politikoak	ERTAINA
		Bilgune Teknikoa eta Plenaria indartuz eta sustatuz		EGIN GABE
	5.2. Praktikak partekatzeko espazioak eskaini: on-line foroa, presentzialak, ...	Praktikak partekatuz elikatzen den lantalde bat sortuz: aurrekontuen lantaldea		ALTUA
		Geolokalizazio-mapa Webgunean: partaidetza prozesuak jaso eta konpartitzeko		ERTAINA
		5.3. Barne eta kanpo komunikazioa indartu		Euskarriak eta plataforma elikatuz: buletina, elkarrizketa, iritzi-sortzaileak, Partekatu...
	Webgunea berrantolatuz eta martxan jarrita	ERTAINA		



Jarraian, alde batetik, azterketan gehiago sakontzeko lan-ildo eta estrategia bakoitzaren garapen-mailara iristeko baldintza lagungarriak zein zailtasunak identifikatzen jardun dugu. Eta bestetik, etorkizunerako gakoak direnei, gometx gorria jarri diegu.

4.3. Plenaria

Aurten, saio berezituak eta telematikoak egin ditugu herri tamainaren arabera. Honen arrazoi nagusia izan da, aurtengo plenaria **2020-2023ko ebaluazio-prozesuan kokatzea nahi izan dela**, eta horren baitan, garrantzitsua ikusi da herri-tamainaren araberako ahotsak jasotzea.

Hala, urtarrilaren 25ean bildu ginen herri txikietako ordezkariekin Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren plenaria egiteko, eta urtarrilaren 26an bi saio egin genituen, bata herri handietako ordezkariekin eta bestea herri ertainetakoekin. Plenarioan Gipuzkoako lurraldeko partaidetza alorreko udal-hautetsi eta teknikariek parte hartzen dute eta, aurten, legegintzaldi amaiera izanik, helburu hirukoitza izan dute: 1) azken urteetako ibilbidea gogoratzea; 2) partaidetza sustatzeko izandako aukera, beharrak eta ideia berriak lantzea; eta 3) 2023ko plangintza aurkeztu eta onartzea da.



2020-2023ko ibilbidearen berri modu arinean eta erakargarrian eman ahal izateko, baliabide bat sortu dugu, bideo bat:

<https://multimedia.gipuzkoa.eus/media/video/45368391.720.mp4>

Zenbait datu:

BILERA-MOTA	Udalerrietatik ordezkari-kopurua	Udalerri kop.	HT	HE	HH	Teknik.	alkateak	Zinegotziak	Emak.	Giz.
Telematikoak	26	22	9	9	16	3	12	10	11	15

Erakunde arteko Espazioan jarraikortasunez parte hartu ohi duten ordezkarietz gain, une puntualetan soilik parte hartu izan dutenak ere konektatu dira. Saioak emankorrak izan dira eta oso aldarre onean hurbildu dira partaideak.


4.4. Bateratze-saioa

Bateratze-saioak eman dio amaiera ebaluazio-prozesuari, martxoaren 30ean egin dugun saioan, helburu hirukoitzarekin:

- ✓ Ebaluazio-prozesuaren itzulera
- ✓ Aurrera begirako norabidea aurkeztea eta aberastea
- ✓ Inspiraziorako unea hartzea

Ebaluazio-prozesuaren emaitzaren txostena aurkeztu da lehendabizi (aurrerago txostenaren esteka) eta, jarraian prozesuan zehar jasotakotik eratorrita landutako norabide proposamena aurkeztu da eta ontzat eman dute bertaratuak. Honenbestez, 2023-2027 epealdirako norabidea zehaztuta geratu da eta honakoa da datozen urtetarako iparra izango diren ildo estrategikoen mapa:






Eta azkenik, Begoña Roman Maestreren eskutik *‘Pensar nuestras instituciones: impacto de la cultura ética en el cuidado de las organizaciones’* izenburupean inspiraziorako hitzaldi bat jaso dugu.



[Hitzaldiaren bideo-laburpena egin dugu, eta hemen dago ikusgai](#)

BILERA-MOTA	Udalerrietatik ordezkariekopurua	Udalerri kop.	HT	HE/HH	Teknik.	alkateak	Zinegotziak	Emak.	Giz.
Aurrez-aurre	17	14	6	7	9	3	1	7	6

Honela laburbilduko genuke **ebaluazio-prozesuak eman duena**, beraz:



*Oharra. Hirugarren faserako aurreikusita zeuden elkarrizketak egin beharrik ez zegoela baloratu zen prozesuan, edukia beste bideetatik jasota zeudela iritzi.

Gipuzkoako Herritarren partaidetzarako Erakunde arteko Espaziotik, 2023ko lehenengo hiru hilabeteetan, legegintzaldiko jardunaren itxierako zereginetan aritu gara. Alde batetik, 2019-2023 legegintzaldian egindakoaren ebaluazioa egin dugu. Eta bestetik, aurrera begirako norabidea zehazteko lanketa egin dugu, 2023-2027ko lan-ildoak definitzeko, hain zuzen ere.

Urtarrilean, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzako kideekin egindako ebaluazioarekin abiatu genuen prozesua. Ondoren, Bilgune Teknikoa osatzen duten kideekin partekatu genuen Zuzendaritzak egindako ebaluazioa, eta elkarrekin osatu eta aurrera begira jarri ginen.

Jarraian, udal-ordezkariekin, tamainaren arabera Plenariak egin genituen, formatu telematikoan. Eta galdera hauen jira-biran aritu ginen:

- Nola bizi izan duzu zuk Erakunde arteko Espazioaren jarduna epealdi honetan?
- Zer eskatzen diogu herritarren partaidetza sustatzeko GFari? Eta udalen arteko elkarlanari?

Eta amaitzeko, saio guztietatik jasotako ondorioak partekatu eta aberasteko, bateratze-saioa egin genuen martxoaren 30ean, politikari eta teknikariek. Barnetik kanporako ibilbidea izan duen prozesua egin dugu, barrurako begiradatik hasi eta kanpokoarekin uztartu dena, eta pausoz pauso elkar elikatu dena. Hala nola, lurraldeko udaletako ahalik eta ahots gehien eta desberdinak entzutea bilatu da eta:

Orotara egindako **6 saioetan**, guztira, **35 pertsona desberdinek** parte hartu dute. Bestela, saio guztietako **partaideen batura 53 da**. Generoaren arabera, parte hartzea nahiko orekatuta izan da: **%53 emakumezkoak** eta **%47 gizonezkoak**.

Herri tamainaren arabera, bertaratzea honakoa izan da: **%21 herri txikietatik eta %79 herri ertain eta handietatik.**

2020-2023 ibilbidean egindako lana baloratu eta emandako urratsez jabetzeak lagundu digu etorkizuneko oinarriak jartzen. Horregatik, prozesuak honako emaitzak eman ditu:

1. 2020-2023 legegintzaldiko plangintzaren betetze-mailaren azterketa, palanka eta zailtasunetan arreta jarrita.
2. 2023-2026rako eremu estrategikoak eta lan-ildoak. Zehazki, hauek, 5 bloketan banatuta:
 1. Partaidetzaren egituratzea
 2. Kalitatezko partaidetza
 3. Partaidetza komunitarioa
 4. Trebakuntza
 5. Komunikazioa



[Ebaluazio-prozesuaren emaitzaren txostena](#)



[Ebaluazio-prozesua modu arinean eta erakargarrian jasotzen duen bideoa](#)

4.5. Foro Teknikoa

4.5.1. Bilgune Teknikoa

Bilgune Teknikoa Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren planifikaziorako gune nagusia da, baita Gipuzkoako Herritarren Partaidetzako teknikarien eta herri txikietako ordezkarien arteko elkargunea ere.

2023an bi Bilgune Tekniko egin ditugu, bata urtarrilean (ebaluazio-prozesuaren baitan) eta bestea, ekainean (plangintzaren tarteko ebaluazioa egiteko). Urte amaieran egin behar zen bilera egiteko zailtasunak izan ditugu, oro har, abenduan partaideentzako data egoki bat bilatzeko zailtasunak izan ditugulako.

⇒ 1. Bilgune Teknikoa: urtarrilaren 19an, ebaluazio-prozesu partekatua

Bileraren helburua: 2020-2023ko jarduna ebaluatzea; eta aurrera begirako norabidea marraztea. Zenbait datu:

BILERA-MOTA	Udalerrietatik ordezkari-kopurua	Udalerri kop.	Teknik.	Ordezkari politikoak (herri txikiak)	Emak.	Giz.
Aurrez aurrekoa	9	9	9	0	6	3

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 3 ordezkari eta Elhuyar Aholkularitzako 2 teknikariek ere parte hartu dute. Guztira 14 lagun bildu gara (11 emakume eta 3 gizon).




Bileraren lehen zatian, 2020-2023 ekitaldiaren balorazioa egiteko, alde batetik, Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko excel tresna oinarri hartuta lan-ildo bakoitzaren garapen-maila aurkeztu dugu (Zuzendaritzarekin landutakoa oinarri hartuta); eta bestetik, dirulaguntzen eta aholkularitza-eskaeren azken urteetako bilakaeraren berri eman dugu.

Ondoren, plangintzaren betetze-mailaren irakurketari ekin diogu, galdera honi erantzun asmoz: *zertan egin dugu aurrera eta zertan ez?* Eta hauek izan dira jaso diren ideia azpimarragarrienak:

- Aurrera egin da ekintza komunitarioaren markoaren lanketan; bai edukietan bai, forma eta moduetan.
- Ez da aurrera egin adostasun politikoaren ildoaren garapenean, eta aipatu da, legegintzaldi hasieran egokia izango zela adostasun eta konpromiso politikoaren ildoari eustea eta formakuntza beharra planifikatzea.
- Parte hartze datuetan, udalerri kopuruak behera egin du. Aipatu da, Espazio eta foroetara udalerri gutxiago gerturatu direla, baina dirulaguntza-deialdira asko aurkezten direla, beraz udalerriak badihardutela partaidetza erakunde eta udalerrietan sustatzen.

- Esperientziak trukatzeko espazio eta momentuen inguruan, udalerrri bakoitzean zertan ari garen partekatzeko espazio eta denbora gehiegirik ez ote dugun hartzen adierazi da.

Eta saioaren bigarren zatian, etorkizun hurbilera begira jarri gara, datozen 4-5 urteko ikusmirarekin. Eta lanerako 4 eremu hauei begira, zer landu beharko genukeen edo fokua non jarri beharko genukeen landu dugu. Asko izan dira eremu bakoitzerako jasotako ekarpenak, hurrengo urtetarako plangintza estrategikoa gehiago xehetzeko oso lagungarriak izango direnak gainera.



⇒ 2. Bilgune Teknikoa: ekainaren 14an, plangintzaren tarteko ebaluazioa

Bileraren helburua: Foru Arauaren kanpo-ebaluazioa; eta bigarren seihileko plangintza proposamenari ekarpenak egitea. Zenbait datu:

BILERA-MOTA	Udalerrietatik ordezkari-kopurua	Udalerri kop.	Teknik.	Ordezkarri politikoak (herri txikiak)	Emak.	Gizon.
Aurrez aurrekoa	12	8	12	0	7	5

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 3 ordezkariak eta Elhuyar Aholkularitzako 2 teknikariak ere parte hartu dute. Guztira 17 lagun bildu gara.



Bileraren lehen zatian, Fernando Pindadok gidatuta, Foru Arauak ezartzen dituen mekanismoen gaineko ezagutza, pertzepzio eta iritziak jasotzen aritu gara. Lau bloke hauen gainean jaso dira pertzepzio eta iritziak:

1. Deliberaziozko partaidetza-prozesuak
2. Herri galdeketak
3. Foru arauen aurre-proiektuak prestatzeko partaidetza
4. Aurrekontuak egiteko herritarren partaidetza

Bileraren bigarren zatian, legegintzaldi berriarekin batera, Jakina da, legegintzaldi berriek eszenatoki berriak irekitzen dituztela eta zentzu honetan, udazkenean abagune hori baliatzea ezinbestekoa ikusi da lurraldeko udalerrietan herritarrek politika publikoetan parte hartzeko helburuan sakontzeko aukera gisa. Horretarako, trebakuntzak paper garrantzitsua jokatu du eta udal-ordezkarri, udal-teknikari nahiz udalerrietako eragileek partaidetza alorreko ezagutza teorikoa eta praktikoa jasotzeaz gain, partaidetzaren sustapenerako ikasitakoa euren egunerokoan aplikatzeko jarraibide eta bitartekoak eskuratzeko helburuari erantzunez jardun dugu.

Horregatik, trebakuntza programa honen bidez, prestakuntzaren alderdi praktikoa eta aplikagarritasuna landu nahi izan ditugu, ikastaroaren hartzaillea ere, hartzaille soila izatetik edukien erabiltzaile aktiboa izan dadin sustatuz. Planteamenduaren helburua izan da, beraz, trebakuntza-saioetan ikasitakoa/jasotakoa lanean aplikatzeko jarraibideekin ateratzea, eta era berean baita, hartzailleak jarraibide horiek eguneroko lanean aplikatzeko konpromiso eta erantzukizun batzuk hartzea ere.

Aipatu trebakuntza, hiru bloke nagusitan ezaugarritu dugu (*4.4.2 atalean xehetasun gehiago*):

1. Jardunaldi-zikloa. partaidetza eta ekintza komunitarioaren inguruko aurrez aurreko jardunaldi irekiak
2. Trebakuntza-tailerrak: partaidetza eta ekintza komunitarioan sakontzen jarraitzeko trebakuntza-tailerrak, udal bakoitzera egokitutakoak (udal mailan)

3. Trebakuntza-pilulak: gai eta formatu anitzeko eskaintza, behar desberdinei erantzuteko urtean zehar, 2024ko urtarrietik aurrera.

Intentsitate eta inplikazio-maila desberdina eskatzen duten formatuak dira, guztiak egiteko aukerarekin, nahiz, bakoitzari interesatzen zaion horretan bakarrik parte hartzeko aukerarekin.

Azkenik, urtearen erdian egonik ere, legegintzaldia amaitu berri egoteak beste fase baten irekieraren sentsazioa ere ematen duenez, legegintzaldi amaierara nola iritsi garen eta legegintzaldi berriarekiko nola gauden partekatzeko tartea ere hartu dugu eta guztirako sentipenak dauden arren, legegintzaldi berriari jarrera eta espektatiba positiboekin begiratzen zaio.

4.5.2. Trebakuntza


→ [Bidelaguntza programa](#)

BIDELAGUNTZA Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzuaren prestakuntza-ekimena diseinatu dugu, udal ordezkari politikoak eta teknikariak trebatuz, herritarren bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea helburu duena, partaidetzaren inguruko ezagutza lurralde osoan zabalduz.



Bizia eta malgua izatea bilatu dugu, tokian tokiko errealitatera eta eskaerara egokituko dena. Eta Gipuzkoako Eskola Irekiaren baitan kokatu da, bi helburu nagusirekin:

- Eragile desberdinen aukerak areagotu eta gaitasunak hobetzeko baliabideak eskaini nahi dituelako, azken batean, horiek gobernantza publikoan hartzen diren erabakietan duten eragin ahalmena handitu eta politika publikoak hobetzeko. Demokraziaren kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko bitarteko izan daitekeela ulertuta.
- Legegintzaldi berriaren testuinguruan, partaidetza eta ekintza komunitarioa udaletan sustatu eta egituratzeko lagungarriak diren gaiak jorratzea. Zehazki, ikuspegi hauetatik jorratu nahiko genituzke:



a) **Jardunaldi-zikloa:** partaidetza eta ekintza komunitarioaren inguruko aurrez aurreko jardunaldi irekiak, “Udalak, partaidetza eta ekintza komunitarioa” izenburupean. Hemen egitarauak:

1. Urriaren 19an herri ertain eta handiei zuzendutako trebakuntza
2. Urriaren 20an, GFA eta batzar nagusietako kideei zuzendutako trebakuntza
3. Urriaren 21ean herri txikiei zuzendutako trebakuntza

Jardunaldiek bi eremutan jarri nahi izan dute fokua: **1) partaidetza 2) ekintza komunitarioa**, ezagutza teorikoa eta praktikoa uztartuz. Eta gisa honetako galderen baitan aritu gara: Herritarrek udal politikan parte hartu ahal izateko bideak eskaintzen ditugu? Nola antolatu behar dira erakundeak partaidetza eta ekintza komunitarioa garatzeko? Zeintzuk dira kalitatezko partaidetzarako gakoak? Zein da udalaren rola ekintza komunitarioan? Zertan eta nola eragin dezake?

Horretarako, gaian adituak diren gonbidatuak izan ditugu alde batetik: Begoña Roman, Quim Brugue, Igor Ahedo, Kotelo, Eva Salaberria... Eta bestetik, ezin ahaztu praktikan dihardutenen ahotsak ere: Oñati, Usurbil, Irun eta Donostiako teknikariak urriaren 19ko mahai-inguruan; eta Zaldibia, Segura eta Asteasuko udal-ordezkariek eta teknikariek urriaren 21eko mahai-inguruan. Eta nola ez, elkarten forotik etorri zaizkigun ordezkarien solasaldiak.

Hau gutxi ez, eta Beatriz Egizabalek antzerkiaren bitartez eta umorearen potentzialitatea baliatuz, bertaratuak beraien praktiken inguruan interpelatu eta gogoetan jarri ditu.



- [Jardunaldien bideo-akta](#)
- [Jardunaldietan landutako edukien bideoa, hizlarien hitzetan](#)

Udalerrii zuzendutako saioetan (urriak 19 eta urriak 21):

- **34 udaletako ordezkariak** hartu dute parte, eta **61 pertsonak guztira**.
 - 14 alkate (8e /6 g)
 - 30 zinegotzi (20 e/10 g)
 - 16 teknikari (10 e/ 6 g)

GFAko departamentuei eta batzar nagusietako kideei zuzendutako saioetan (urriak 20):

- **25 pertsonak hartu zuten parte**, 7 departamentu eta 2 Batzarkidek:
 - 2 batzarkide (1e/1g)
 - 9 zuzendari (2e/8 g)
 - 7 zerbitzuburu (1e/6g)
 - 4 atalburu (4e/0g)
 - 3 teknikari (3e)

b) **Trebakuntza-tailerrak:** partaidetza eta ekintza komunitarioan sakontzen jarraitzeko trebakuntza-tailerrak diseinatu ditugu, udal bakoitzera egokitutakoak (udal mailan); 2023ko azarotik 2024ko apirila arte garatzeko. 5 tailer eskaini dira eta bakoitza aholkularitza batek diseinatu eta bideratzeko prestatu dira:

1. Nola sustatu herritarren parte hartzea udaletik?

Udalak partaidetza udal barrura zein kanpora begira nola duen egituratuta lantzeko tailerra da. Parte hartzeaz zer ulertzen den eta partaidetza sustatzeko estrategia eta mekanismoez jardungo da bertan.

2. **Udaletako partaidetza gune, espazio eta prozesuen kalitatean sakontzen.**
Lurralde mailako ekintza komunitarioaren markoa ezagutu eta ikuspegi komunitarioa udalean txertatzeko estrategien inguruko gogoeta-tailerra da.
3. **Ekintza komunitarioaren estrategiatan sakontzen**
Udaleko kudeaketan eta zerbitzuetan ikuspegi komunitarioa txertatzeko ariketa praktikoa egingo da tailer honetan, egiteko moduetan eragitea helburu izanik.
4. **Nola txertatu ikuspegi komunitarioa gure zerbitzu eta ekipamendutan?**
Partaidetza-espazio eta guneetan kalitatezko partaidetza bermatzeko neurrien eta estrategiez jarduteko tailerra da.
5. **Nola indartu partaidetza eta ekintza komunitarioa 2500 biztanleko herrietan?**
Partaidetza eta ekintza komunitarioa, herri txikien begirada, logika eta beharretatik lantzeko tailerra da.

Tailerrak udal ordezkari politiko eta udalean edo udalarentzat lan egiten duten pertsoneri zuzenduta egingo dira eta parte hartzeko, gutxienez 10 pertsonako taldea osatu behar da (8 herri txikien kasuan) eta saioak 2024ko apirila bitartean garatzeko konpromisoarekin.



[Trebakuntza-tailerren berri emateko sortu dugun bideoa.](#)

Udalek trebakuntza-tailerretan izena emateko epea azaroaren hasieran bukatu zen eta hauek izan dira tailer eskaera egin duten udalak:



- c) **Trebakuntza-pilulak:** gai eta formatu anitzeko eskaintza, behar desberdinei erantzuteko urtean zehar, 2024ko urtarriletik aurrera, eta 2023an ez da zehaztu zein izango den trebakuntza-pilulen katalogo zehatza, baina Gobernu Onerako eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak lurraldeko udaletara egindako bisitetatik jasotako eskaerak oinarrituta diseinatuko dira.

5 BALORAZIOA

5.1. Balorazio orokorra

2020-2023 legegintzaldiak eman duena kontuan hartuta, 4 urte horietan emandako urratsek Erakunde arteko Espazioaren jardunean jauzi kualitatibo bat ematea ahalbidetu dute. Egituren araberako lanketak egitetik, lanketek eskatzen zutenaren araberako egitura edota formatuetarako bidea eginez; eta inoiz baino gehiago teoria eta praktika uztartuz lan egin da.

Horren adibide esanguratsuena da, partaidetzari begiratzeko modu berri bat eskaini digun lurraldeko ekintza komunitarioaren marko kontzeptual, estrategikoa eta operatiboaren lanketa, bai egiteko moduetan zeina emaitzan ere. Hala nola, beste sare batzuetarako sarbidea eman digu lanketa honek, beti ere, Espazioaren erabiltzaile eta eragile zentralak diren udalerrriak zein beraien ordezkariak erdigunean jarrita.

Eta azkenik, gogoeta estrategikoarekin hasi zenak ebaluazioarekin eta gogoeta gaurkotuarekin behar zuen amaitu. Eta horregatik, ebaluaziotik etorkizunera begiratzeko ariketarekin eman zaio amaiera 2019-2023 legegintzaldiari.

Hau guztia esanda, azken urteetako Erakunde arteko Espazioaren jardunak erakusten du hain aldakorra den gizarte testuinguruak gisa honetako egituretan ere prozesu ikuspegiarekin eta malgutasunez jardutea eskatzen duela; beti ere, uneko errealitatearen behar eta aukerei erantzuteko modurik eraginkorrenak bilatuz. Eta nola ez, lanerako oinarriak eta norabidea argi izanik, noski.

2023an begirada jartzen badugu, oinarri sendoak eta plangintza berriari ekiteko baldintza egokiak lantzeko urtea izan dela esango genuke. Urte hasieran abiatutako ebaluazio-prozesuak abiapuntu egokia eman dio diseinatu berri den plangintzari. Ziklo bat bukatu beste bat hasteko, ondo egindakoak indartuz eta zailtasunetatik ikasiz, estrategiak birformulatuz. Ebaluazio-prozesuko asistentzia datuak ikusita, agerian geratzen da Erakunde arteko Espazioarekiko Gipuzkoako udalek erakusten duten interesa eta egozten dioten balioa, eta bertan jasotako ekarpen eta edukien maila ere nabarmentzekoa da, oinarri sendoa eman diotelako abiatu berri den 2023-2027 legegintzaldiko plangintzari.




Era berean, planifikaziotik harago, ekintza estrategikoetarako jauzia ere eman da, eta hauteskunde ondoren, larregi itxaron gabe, une egokian zetorren ekintza gauzatu da, udal ordezkari politiko berriei zuzendutako prestakuntza-programa. Beharra ondo jaso eta erantzuteko gaitasuna erakutsi du Erakunde arteko Espazioak eta partaideen aldetik jasotako balorazioek erakusten dute, ekintza ondo hartua izan eta baloratua izan dela. Une eta leku egokian garatu den ekintza izan da.

Lanerako lurra ondo erein eta eta haziak jartzen hasteko urtea izan da. Aurrera begira, begirada estrategikoa galdu gabe, honako alderdietan arreta jartzea ezinbestekoa izango da:

- Lehentasunak ezarri eta urtez urteko ekintza-plana idaztea.
- 2023an garatu den Bidelaguntza prestakuntza-programarekin ("Udalak, partaidetza eta ekintza komunitarioa Gipuzkoan" jardunaldia eta udaletan eskaini diren tailerrak) udalerrri berri asko hurbildu dira Erakunde Arteko Espaziora eta hori aukera ona da egiturak indartzeko, indartze hori emateko baldintzak badaudela iruditzen zaigu.
- Hala ere, hausnartu beharrekoa da egituren indartze hori zein mailatako parte hartzean ezaugarritzen dugun; izan ere, udal-tamainaren arabera udal bakoitzak dituen baldintza eta baliabideak oso desberdinak dira eta ondorioz, parte hartzeko moduak ere desberdinak izan

daitezke, baina hala ere, denok Erakunde arteko Espazioaren parte izan. Bakoitzaren ahal eta beharretara egokitutako sistema osatzeko ariketa egitea interesgarria litzateke

2023a zenbakietan:



5.2 Bidelaguntza programaren balorazioa

2023an programa honen baitan aktibatu diren bi arloen balorazioa ekarri dugu. Alde batetik, jardunaldi-zikloena eta bestetik, trebakuntza-tailerrena.

Hasteko, jarraian, jardunaldi-zikloan parte hartu zutenek egindako balorazioa, egun bakoitzekoa:

Herri ertain eta handiak. Urriak 19, Miramar Jauregia.

Sexua
Emakumea 20
Gizonezkoa 15
Ez-bitar 0
EG (Erantzun gal) 1

Ardura	
Politikaria	22
Teknikaria	8
Besteak	2
EG (Erantzun gabe)	3

BATEZBESTEKOA (BALORAZIOA)
8,74

Trebakuntza			Eraitza			
1. Landutako gai eta edukiak egokiak izan dira gaian sakontzeko	2. Hizlariak ideiak argi eta garbi azaldu dituzte.	3. Trebakuntza saioaren egitura, dinamika eta denbora egokiak izan dira.	4. Trebakuntza baliagarria izan da hautetsi berriak partaidetza eta ekintza komunitarioaren arloan kokatzeko.	5. Trebakuntza baliagarria izan da Udalaren jardunerako.	6. Gaia lantzen jarraitzeko gogoz atera naiz trebakuntzatik.	7. Orokorrean, nola baloratzen duzu ekintza?
8,72	8,90	8,64	8,60	8,56	8,89	8,89

Zer izan da gehien baloratzen duzuna? Ba al duzu hobetzeko proposamenik?

- Askok gustatu zait jende berria eta anitza ikustea eta eguna partekatzea.
- Bistakoa, oso ondo pentsatu eta antolatutako jardunaldia. Zentzua, begirada, ildoak. ZORIONAK.
- Mahai ingurua egin zait luzeegia akaso.
- Bertaratuen elkarrizketarako tartea motz xamar geratu da.
- Partaidetzaren balioaz eta beharraz jabetzeko balio izan dit.
- Primeran egon da. 4 urtean behin errepikatuzkoa. Eskerrik asko!
- Emango diren ikastaroei buruzko informazio gehiago? Terrenoan ematen diren egoerei buruzko azalpen gehiegi?
- Teoriaz gain, praktika ere landu da. Mahai-inguruko esperientziak oso aberasgarriak izan dira. (Arratsaldeko saioan ez dut parte hartu).
- Goiz amaierako mahai ingurua.
- Arratsaldekoa, puntazo bat! Zoragarria.
- Kokatzen lagundu dit eta Udalera errealitatetik parte-hartzea nola enfokatu ideiak eman dizkit. Gaiaren inguruko formazioa eskaintzea eta ardura paretsuak ditugun pertsonak elkartu eta bata bestearengatik ikasten jarraitzeko gune egoki hauek izatea oso baliagarria eta interesgarria izan da.
- Holako topaketek ere elkar ezagutu, harremandu eta aliantzak eraikitzeke balio dute. Zorionak.
- Aldundia herriengana gerturatzea eta batea lan egiteko aukera izatea. Udalen egitekoan pentsaraztea eta hausnartuaraztea.
- Eman diren mezu interesgarriak
- Kasu praktikoen aurkezpenak egitea.
- Zoriondu antolakuntza guztiagatik. Metodoa.
- Begirada desberdinetatik: akademiatik, instituzioetatik, elkarteetatik, herritarren begiradatik (clown oso ondo)
- Edukien kalitatea. Hizlarien maila ona eta umore ukitua.

- Kontzeptuak argitzea eta beste esperientziak partekatzea. Nola ez, umorearen erabilera errealitatearen adierazpenean.
- Teoria orokorretik abiatuta, maila praktikora egindako urratsa da gehien baloratzen dudana. Hobetzeko baina, bertan ginen kideon arteko elkarrizketa motz geratu dela iritzi diot. Taldean bildu garenean bakoitzaren ikuspegia mahai gaineratu dugu, baina debatitzerako denbora ez dugu izan.
- Formatoa praktiko/parte-hartzaileagoa ere izan zitekeen. ;)
- Clown-a primerakoa izan da, dena oso argi adierazi du eta hausnarketarako aukera ematen du.
- Saio ekilibratua (dinamika aldetik)

Herri txikiak. Urriak 21, Goizane Zentroa.

Sexua
Emakumea 10
Gizonezkoa 4
Ez-bitar
EG (Erantzun gail)

Ardura	
Politikaria	12
Teknikaria	1
Besteak	0
EG (Erantzun gabe)	2

BATEZBESTEKOA (BALORAZIOA)
8,82

Trebakuntza			Eraitza			
1. Landutako gai eta edukiak egokiak izan dira gai sakontzeko	2. Hizlariak ideiak argi eta garbi azaldu dituzte.	3. Trebakuntza saioaren egitura, dinamika eta denbora egokiak izan dira.	4. Trebakuntza baliagarria izan da hautetsi berriak partaidetza eta ekintza komunitarioaren arloan kokatzeko.	5. Trebakuntza baliagarria izan da Udalaren jardunerako.	6. Gaia lantzen jarraitzeko gogoz atera naiz trebakuntzatik.	7. Orokorrean, nola baloratzen duzu ekintza?
8,87	9,00	8,60	8,73	8,47	9,40	9,27

Zer izan da gehien baloratzen duzuna? Ba al duzu hobetzeko proposamenik?

- Beste herrietan zer egiten duten jakitea: Zaldibi, Segura, Asteasu. Bikain!!
- Teorikoki janzteaz gain, kasu praktikoak ezagutu eta hauek udaletan lantzeko aukera argiak ikusi dira. Bea Egizabalen amaiera zoragarria!
- Dinamikoa baina edukietan sakona izan da, barrua mugitzen dizun saio horietakoa.
- Esperientziak elkarbanatzea. Jendea (teknikari, zinegotzi, alkate...) ezagutzea.
- Talde txikia izatea, gertutasuna. Bukaerakoa Bearen umorea - laburpena mundiala!
- Aberatsa izan da.
- Oso interesgarria gainontzeko herriak zertan dabilzan ikustea. Saioa ixteko Egizabalen EDERRA!
- Nola joan den MARKOA eta esperientzia zehatzak. Hobetzeko: Herri txikien koordinazioko espazioari arreta gehiago eskaini.
- Beste herrien esperientzia kontraztea. Gaia lantzen segi.
- Gurea bezalako herrien esperientziak entzutea oso baliagarria iruditzen zait.